

Astiaidiko hezitzaileak formatzeko ikastaroak martxan!

- Astialdi Foroko eskolek eta federazioek eskaintza ezagutzera eman eta ikastaroetan matrikulatzeko epea zabaldu dute.
- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) hemengo eskoletan formatzeko garrantzia azpimarratu dute.

Bilbo, 2018ko irailaren 7a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Astialdi Foroko eskolek eta federazioek antolatutako formakuntza ikastaroak aurkeztu dituzte gaur goizean, batik bat **“astiaidiko hezkuntzan hazi, ikasi eta partekatu nahi duten gazteei”** bideratuak.

Maialen Olabek, EGK-ko presidentea, eta Andoni Iturbek, BFAko Kultura zuzendari nagusiak, azpimarratu dute **“esparru ez-formalean ematen den astiaidiko hezkuntza baloreetan oinarritutakoa”** dela eta horrek eragin “oso aberasgarria” duela “gizartearentzat”. Hori dela-eta “gazteen artean horrelako formakuntza gehiago zabaltzea” eskatu dute.

Doña Kasilda parkean egindako agerraldian **hiru titulazio aurkeztu** dira: astiaidiko begiralea, zuzendaria eta gizarte eta kultura sustatzailearen titulazioa, beste ikastaro laburrez gain. Gainera, formakuntza hauen bitartez **“Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulazioa ere”** lortzen dela nabarmendu du Olabek.

Era berean, EGK-ko presidentek eskola eta federazioek egindako lana goraiatu du. “Astiaidiko hezitzaileari balio erantsia ematen diote eta EAEko errealitatean eta gizartean egokitutako kalitatezko formakuntza eskaintzen dute”, gogorarazi du.

Bertako eskoletan formatzearen garrantzia

Hedabideen aurrean eskoletan ikasi duten gazteek azaldu duten bezala, Bizkaian “Eskola Ofizial asko daude eta aukera oso anitza eta zabala da”. “Gainera, bertako eskolak dira eta gure kultura, gizartearekin, hizkuntzarekin, errealitatearekin... bat datozen edukiak eta gaiak kontuan hartzen dira”, goraiatu dute gazteek. Ildo beretik titulua ateratzeko prozesua azaldu dute: “Atal teorikoa egiteko aukera ugari daude, eskolaren arabera ikastaroa egiteko modalitate desberdinak daude. Horrela, ikasleen beharrei hobekien egokitzen den aukera posible da: modu intentsiboan edo estentsiboan: opor-tartean, aste-bukaeretan, arratsaldetan...”.

EGK-ko presidentek jakinarazi duenez matrikulazio epe batzuk zabaldu dira eta irailean zehar izango da posible matrikulatzea. “Ikastaroen informazio guztia www.astialdiforma.org webgunean bilduta dago, bertan eskola bakoitzaren matrikulazio epeak, ikastaroen datak, lekuak, zein hizkuntzatan egiten diren etab. azaltzen da”.

Azkenik, Olabek “eskola eta federazioetara” gerturatzen animatu ditu gazteak “lehen pertsona informazioa helarazteko” eta elkarrekin “harremana egiteko”. Era berean, EGK-ko presidentek adierazi nahi du “esparru ez-formalean ematen den astiaidiko hezkuntza”, baloreetan oinarritutako hezkuntza izanik, “oso aberasgarria” dela gizartearentzat eta gazteen artean horrelako formakuntza “gehiago” zabaldu beharko litzatekeela.

Ikastaroak antolatu dituzten eskola eta federazioak honakoak dira: Ikas kultur elkartea Aisiola, EDE fundazioa, Gaztetxo eskola, Henry Dunant, Itaka-Eskolapios Iturralde eskola, Kurkudi eskola eta Urtxintxa eskola.

Info+

komunika@egk.org

688675932/943429767